

**ZERBITZUEN KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA: PROZEDURA DU IREKIA ETA TRAMITAZIO ARRUNTA.**

**ARETXABALETAKO NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA (GAZTELEKU ZERBITZUA).**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Agiri honen arabera egiten den kontratuak xede hau izango du: ARETXABALETAKO NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA, Preskripzio Teknikoen agirian, agiri honetan eta kontratuaren adjudikaziodun gertatzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan.

**2. EXEKUTATZEKO EPEA**

Prestazioa emateko epea BI URTEKOA izango da, kontratua sinatzen den egunetik aurrera eta berariaz luzatu ahal izango da, elkarren artean adostu eta gero, BESTE BI URTEZ, baina kontratuaren iraupena guztira ez da izango LAU URTE baino luzeagoa.

Kontratista berandutze egoeran egongo da epe hori igaroz gero, eta Administrazioaren aldetik ez dago ohartarazi beharrik izango.

**3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Lehenbizi bi urterako kontratuaren prezioa 106.520 eurokoa izango da, BEZri dagokion 22.369,2 eurorekin batera. Kopurua lizitatzailiek beherantz hobetu egin ahal izango dituzte eskaintzak.

Kontratuaren balioetsitako aurrekontua egonez gero, -luzapenak barne- 213.040 eurokoa da eta BEZri dagozkion 44.738,4 euro.

Kontratuaren prezioan pertsonal eta ekintza eta material gastuak sartzen dira.

Prezioan sartuta egongo dira kontratua ematearen ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak, eta pertsonalaz gain, ekintzak aurrera eramateko baliabide materialak eta ez materialak.

**4. FINANTZAKETA**

Nahiko aurrekontu kreditu dago, kontratua betetzeak Udalarari sortuko dizkion obligazioei aurre egiteko.

Halaber, aurrekontu gaietarako organo eskudunak bere gain hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko konpromisoa.

**5. NOLA ORDAINDU**

Kontratuaren prezioa ordainduko da hilabeteko faktura aurkeztu eta gero (adjudikazio prezioaren hamaikagarrena), benetan egindako zerbitzuen truke. Faktura hori zerbitzuaren udaleko arduradun teknikariak gainbegiratu eta kontrastatu beharko du eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

Faktura onartu eta gero, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 216. artikuluan legez aurreikusitako epeetan ordainduko da.

## **6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA**

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira, kontratua esleitzen denetik urte bat igarotakoan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 89tik 94 arteko artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren bigarren urtetik aurrera kontratua berraztertzean aplikatu beharreko formula honakoa izango da: aurreko urte naturaleko estatuko Kontsumorako Prezioen Indizean izandako aldaketaren % 85a.

## **7. BERMEAK**

Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea.

Kontratuaren adjudikaziodunak, hartutako obligazioak beteko direla bermatzeko, behartuta dago behin betiko bermea jartzen, adjudikazioaren zenbatekoaren %5ekoa, BEZa sartu gabe.

Aipatutako bermea jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lizitatuzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 96.1 artikuluan ezarritako edozein bidez jarri ahal izango da, eskudirutan jarritakoak izan ezik, horiek Aretxabaletako Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar dira eta.

Bermea itzuliko da, bai guztia edo, hala badagokio, zati bat, lehen aipatu den Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera, bermearen epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak kontratuaren obligazio guztiak bete dituenean.

## **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **8. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA ERA**

Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da, ekonomikoki eskaintza onuragarriaren alde. Hona hemen prozedura irekia adjudikatze hartuko diren irizpideak, goitik beherako garrantziaz eta horiei datxekien ponderazioaz ordenaturik:

#### **1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 51 puntu. (C gutun-azalean sartzeko)**

51 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa ateratzen da formula honetatik: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatuzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da,

$$PI = Ob/OI \times 51$$

Non-eta:

PI: lizitatuzailearen puntuazioa

Ob: eskaintzarik txikien

OI: lizitatuzailearen eskaintza

Zerbitzu honetan Udalarentzat BEZak duen kostuaren izaera dela-eta (BEZ jasan ez kengarria), prezioari dagokion adjudikazio irizpidea baloratzeko, kontuan hartuko da enpresa lizitatuzaile bakoitzak euren eskaintzan aukeratutako bukaerako prezioa, BEZ barne.

#### **2.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUA KUDEATU ETA USTIATZEKO PROIEKTUA: 40 puntu (B gutunazalean sartu beharrekoa)**

Puntu honetan, besteak beste, aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- a) Oinarritze teorikoa eta proiektuaren helburuak: 8 puntu gehienez.
  - Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemari erreferentzia egitea: 2 puntu.
  - Marko teorikoa, helburu zehatzak eta proposatzen diren ekimenak era egokian erlazionatzea: 3 puntu.
  - Zerbitzuetako hartzaileen adin tarte ezberdinei begirako planteamendu zehatzak egitea: 3 puntu.
- b) Lan-metodologia: 22 puntu gehienez.
  - Zuzeneko arretan jarduera arlo bakoitza nola landuko den zehaztea (Aisia hezitzailea, parte hartzea adieraztea, sorkuntza, Informazioa, orientazioa, bide laguntza): 14 puntu.
  - Zeharkako lerroak nola jorratuko diren azaltzea: 4 puntu
  - Zerbitzuak ebaluatzeko planteamendu egoki eta zehatz bat azaltzea: 4 puntu
- c) Proiektua udalerraren errealitatera egokitzen bada: 10 puntu gehienez
  - Zerbitzuetarako esanguratsuak izan daitezkeen baliabideak eta elkarreak ezagutzen direla erakustea eta haiekiko elkarlana eta koordinazioa zehaztea: 5 puntu.
  - Auzo zein herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak: 5 puntu.

## 9. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe diren, haien kaudimen ekonomikoa, finantziarria eta teknikoa egiaztatzen duten pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta sartuta ez badaude Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluko xedatzen dituen debeku kasuetan. Kaudimena egiaztatuta eta ebaluatuta da, 10. klausulan ezarritako baliabideen arabera.

Halaber, egin ahal izango dute eurek beren kabuz edo baimendutako ordezkari bitartez, hartarako emandako ahalordetzaren bidez. Pertsona juridiko baten izenean bere familiako baten bat aurkeztuz gero, agiriz froga beharko du ahalmenetik dagoela hori egiteko. Batean zein bestean, kontratatzeko aipatu diren ezintasun kausek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, lizitatuaren helburua izango da kontratu honen xedarekin zuzeneko harremana duten jarduerak egitea, eta hori gauzatzeko, giza baliabideak eta beharrezkotzat jotzen diren baliabide materialak izan beharko dituzte.

## 10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espediente, bai eta horrekin batera doan dokumentazio tekniko ere, Aretxabaletako Udalean aztertu ahal izango da, bulego orduetan 9:00etatik-14:00ak arte, lanegun guztietan (zapatueta izan ezik), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaraturik agertzen den hurrengo egunetik hasita, eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte, hau da, irailaren 26a arte.

Halaber, lizitazio hau Udaleko Kontratatzailearen Profilean iragarriko da eta agiriak eta dokumentazio osagarria aztertu daiteke horren bidez.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztutako proposamenak, nahiz eta jaso bidali zituztela Postetxean epea amaitu baino lehen. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epean bidaltzen bada telex, fax, telegrama edo posta elektronikoki bidez, goian adierazitako helbidera, eskaintza postaz bidali zen egun berean bidali izanaren frogagiria. Baldintza bi horiek pilatu ezean ez da onartuko proposamena, jasotzen bada proposamenak aurkezteko epea amaitzeko eguna baino geroago. Edozelan ere, adierazitako egunetik hamar egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, proposamena ez da onartuko ezein kasutan.

Lizitatuak hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dute itxita. Kartazal bakoitzaren barruan hau idatziko da: "ARETXABALETAKO NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamena sinatzen duenaren enpresaren izena, izen-abizenak adieraziko dira, eta noren izenean sinatzen duen. Bi kartazalok sinatuta egongo dira.

**1) "A" kartazalaren azpiztitulua izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:**

1.a) Enpresariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak.

Nortasuna egiaztatuko da hauek aurkeztuz:

- Nortasun Agiria, lizitatzailerak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate baten ordezkari jardunez gero, Nortasun Agiria eta ahalordetze eskritura.
- Lizitatzailerak pertsona juridikoa denean, eraketa eskritura edo aldaketa, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko kodea, inskribatzean eskatuz gero, aplikatu dakiokkeen merkataritza legeriaren arabera. Hala izan ezean, jarduteko gaitasuna egiaztatuko du, eraketa eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen edo fundazio aktaren bidez, eta hor jasoko dira jardueraren arauak, eta hala badagokio, inskribaturik dagokion erregistro ofizialean. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, egiaztatu behar dute inskribaturik daudela lanbide edo merkataritza erregistroan, baldintza hori eskatzen badu Estatuko legeriak.
- Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa batasuna eratuz, taldekide bakoitzak, jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, ekarriko du aldi baterako enpresa batasuna eratzeko konpromisoa, adjudikaziodun irtekez gero. Era berean, proposamenean adieraziko beharko dute aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

1.b) Berariazko adierazpen erantzulea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan aipatzen diren kontratu debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duena.

1.c) Berariazko adierazpen erantzulea, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak eta gizarte segurantzaren betetzea dituela agertzen duena.

1.d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa kreditatzen du(t)en agiria edo agiriak. Era honetan edo hainbat eratan egiaztatu beharko ditu:

- Finantza erakundearen txostena edo, hala badagokio, lanbide arriskuengatik kalte-ordain aseguruaren izanaren frogagiria.
- Pertsona juridikoak direnez, Merkataritza erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutako urteko kontuak aurkeztea, eta beharturik egon ezean horiek aurkezteko, kontabilitate liburuak behar bezala legeztaurik.
- Negozioen bolumen globalari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren helburuari dagokion jardura eremuan duen negozio bolumenari buruzkoa, betiere azken hiru urtealdi erabilgarriari buruz

1.e) Kaudimen teknikoaren edo profesionalaren ziurtagiria. Agiri hauek aurkeztuz egiaztatu behar dute:

- Azken hiru urteetan egin dituzten gazte leku zerbitzuen zerrenda, eta hor sartuko dira zenbatekoa, egunak eta horien onuradun publiko nahiz pribatuak, garrantzitsuenetan exekuzio onaren ziurtagiriek batera.

Ez ditugu onartuko, gazteleku zerbitzua HIRU IKASTURTETAN eman izana egiaztatzen ez duten enpresa lizitatzaileraren proposamenak.

1.f) Atzerriko enpresak badira, edozein ordenako Espainiako epaitegi edo auzitegiaren jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraztea, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lizitatzailerari egokitu dakiokkeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen eta Kontratisten Erregistroak onartzen dituen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Sailkatutako Enpresen erregistro ofizialean izena emanda dauden lizitatuzaileek ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztu ahal izango dute, 1.a), 1.b) eta 1.c) ataletan eskatzen diren agirien orde; ziurtagiria egingo du erregistroko letratu arduradunak.

**\* Agiri horiek guztiak aurkeztuko dira jatorrizko agirian, edo behar bezala kopia egiaztatuaren bidez.**

**\*\* Udal honetako Kontratazio Mahaiak adjudikazio eguna baino sei hilabete lehenago izapidetutako beste kontratazio espediente baterako "A" gutun-azalean eskatutako agiriak aurkeztu dituzten lizitatuzaileak salbuetsita geratu dira berriro aurkezteko obligaziotik, betiere aldaketarik izan ez bada horretan eta/edo iraungita ez badaude, eta gorabehera hori jasoko da, adierazpen erantzule bidez.**

## **2) "B" gutun-azalaren izenburua izango da "MEMORIA TEKNIKOA", eta agiri hauek izango ditu:**

Adjudikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa; horren balorazioa egongo da balio irizpen baten mende, hain zuzen ere:

Memoria teknikoak eta proposatutako hobekuntzak, 8. klausulako 2 atalean ezarritako adjudikazio irizpideak baloratu ahal izan daitezten.

Kasu batean ere ez dira sartu behar gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa edo era automatikoan zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagokien beste edozein datu eta "C" gutun-azalean sartu behar diren datuak.

Datu horietako edozein sartuz gero "B" gutun-azalean, lizitatuzailea prozedura honetatik kanpo geldituko da, eta ez da irekiko "C" gutun-azala.

## **3) "C" gutun-azalaren izenburua izango da "PROPOSAMEN EKONOMIKOA", eta agiri hauek izango ditu:**

Eredu honen arabera diru proposamena:

Izena:..... NA zk. ...., Helbidea..... PK... telefonoa ..... , eta NA edo IFK (persona fisikoa edo juridikoa izan .....), ARETXABALETAKO NERABEENTZAKO BALIO ANITZEKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA) kontratatzeko, Aretxabaletako Udalak deitutako prozedura irekiaren berri jakin dut, eta adierazten dut:

1) Konpromisoa hartzen dut aipatu lana ..... euroan egiteko, gehi ..... €, .....%-ko BEZ-ari dagozkion euroak, eta prezioan sartzen dira kontzeptu guztiak, barne harturik edozein zerga esferaren zergak, gastuak, tasak eta arbitrioak, bai eta enpresariaren irabazi industrialak ere.

2) Arau Teknikoen berri dakit, haren eduki eta guzti, bai eta kontratu hau arautzeko administrazio klausula berezien agiria eta gainerako agiriak ere, berariaz neure gain hartzen ditudana eta den denak hartzen ditut onartat.

3) Ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditut onartatzen dudana enpresariaren.

4) Halaber, nire burua behartzen dut lan eta zerga arloan araututakoa betetzen. (non) ..... , (noiz).....ren .....(e)an

Sinadura

Kasu batean ere ez dira sartu behar gutunazal honetan memoria teknikoak, lan programa, edo adjudikazio irizpideei dagozkien beste edozein datu, horien balorazioa balio irizpen baten mende baitago, eta horiek sartu behar dira "B" gutunazalean.

Datu horietako edozein sartuz gero "C" gutunazalean, ez dira baloratuko agiriok; hortaz, era automatikoan zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagozkien puntuak baino ez zaizkio batuko.

Eskatutako agiriak aurkeztu ahal izango dira jatorrizkoan edo kopian.

## 11. ALDAERAK EDO ALTERNATIBAK

Ez dira onartuko.

## 12. KONTRATAZIO MAHAIA

.Ondokoek osatuko dute:

- Lehendakaria: kultura batzordeburua.
- Bokalak : Kontuhartzailea, Udaleko idazkaria, Kultura teknikaria eta kulturako administratzailea.
- Idazkaria: Gazteria teknikaria

## 13. AGIRIAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, garaiz eta behar bezala jasotako agiriak ("A" gutunazala) kalifikatuko ditu Mahaiak, eta horretarako, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorren 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazitako moduan jardungo du.

Hartarako, argibideak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dituzte, lizitatzaileren gaitasunari eta kaudimenari buruz, Erregelamenduaren 22. artikulua xedatzen duen bezala, eta horiek ekarri beharko dira bost egun naturaleko epean. Argibideen edo informazio osagarriaren eskaeraren berri emango die Mahaiak ahoz interesdunei, eta, era berean, kontratazio organoaren iragarki taulan jarriko du eskaera. Era berean, aurkeztu diren agirietan zuzendu daitezkeen akatsen berri emango du Mahaiak, hiru laneguneko epean lizitatzailerek konpondu edo zuzendu ditzaten antzemandako akatsak.

Egintza horretan bertan Kontratazio Mahaiak "**B**" gutunazala (**Memoria Teknikoa**) irekiko du, eta hura baloratzeko ardura duen organoari bidaliko dizkio, eta hark balorazio txostena itzuli beharko dio, proposamen ekonomikoa jende aurrean ireki baino lehen.

Aurkeztutako **eskaintza ekonomikoak ("C" gutunazala)** jende aurrean irekiko dira kontratu egile profileen adierazitako leku, egun eta ordua (<http://www.aretxabalea.com>) eta onartutako lizitatzailerei bidalitako komunikazioan.

Geroago Kontratazio Mahaiak kontratuaren adjudikazio proposamena bidaliko dio kontratua gauzatu behar duen Kontratazioa Organoari.

## 14. ADJUDIKATZEA, SINATZEA ETA GASTUAK

Kontratazio mahaiak, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 320.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio organoari bidaliko dizkio aurkeztu diren proposamenak, aktarekin batera, eta adjudikazio proposamena.

Kontratazio Organoak, aukeran, ahalmena izango du kontratua proposamen onuragarrienari adjudikatzeko, agiri honetako 8. klausulan ezarritako irizpideak ezarritik, balio ekonomikoari bakarrik kasu egin gabe, edo prozedura ezerezean geratu dela adierazteko, baina kasu guztietan arrazoitu egin behar du hori erabakiz gero, adjudikatzeko irizpide horiei buruz.

Errekerimendua egingo zaio eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen lizitatzaileri, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamar egun balioduneko epean, jardun hauek egin ditzan:

- a) Behin betiko bermea jarri eta, hala badagokio, berme osagarria.

b) Zerga-obligazioak eta Gizarte Segurantzako obligazioak egunean dituela kreditatzen duten agiriak ekartzea.

c) Erantzukizun Zibileko aseguruaren polizaren kopia eta ordainagiria aurkeztu.

Adjudikazioa, aurreko 10 eguneko epea bukatu eta hurrengo 5 egun baliodunetan, betiere lizitatuak aurkeztu badu adierazitako dokumentazioa eta jarri badu behin betiko bermea.

Ekonomikoki eskaintza onuragarriena egin duen lizitatuak kontratuaren adjudikazioa egiten ez zaionean, hark ez dituelako bete hartarako beharrezkoak dituen baldintzak, beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak errekerimendu berri bat bidali dezake ondorengo lizitatuak, haien eskaintzak sailkaturik geratu diren ordenan, eta hala denean 10 egun balioduneko epea emango zaio hari, lehen adierazitakoa betetzeko.

Hiru hileko gehienezko epean adjudikatuko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Kontratua hobetuko da administrazio agirian sinatuta, eta hori egin behar da adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hamabost egun baino beranduago ez.

Lizitatuaren eta adjudikazioaren iragarkien gastuak esleitu izaten denaren kontura joango dira.

Kontratua adjudikatu eta errekurtsioak jartzeko epeak igaro eta gero, errekurtsorik jarri barik, "A" eta "B" gutun-azalean datozen adjudikatu gabeko enpresa lizitatuak agiriak euren esku geratuko dira. Agiri horiek haien esku geratzen direnetik bi hileko epea igarotakoan, administrazioak suntsitu egin dezake enpresa lizitatuak ekarritako dokumentazio hori, enpresok eraman edo hartu ez dutenean dokumentazioa.

### **III.- KONTRATUAREN EXEKUXIOA**

#### **15. KONTRATUA BETETZEKO**

Kontratuaren arrisku eta gorabeheren erantzukizuna adjudikazio hartzailearena izango da. Kontratua beteko da agiri honetan jasota datozen klausulen arabera eta, hala badagokio, espedienteari batutako espezifikazio teknikoaren arabera. Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta hark erabiliko ditu ahalmen horiek bai idatziz bai ahoz. Kontratistari edo haren mende dauden pertsonak egotzi dakizkien egintzengatik edo omisioengatik, arriskuan jartzen denean kontratua ondo bidean joatea, Administrazioak exijitu egin ahal izango.

#### **16. KONTRATU HAU EXEKUTATZEKO GIZARTE IZAERAKO ONDORENGO EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK (BALDINTZA SOZIALAK) ESKATUKO DIRA:**

Kontratu hau exekutatzeke gizarte izaerako ondorengo exekuzio baldintza bereziak eskatuko dira:

Ordezkapenak egiteko norbait kontratatu behar duenean, lana aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatu beharko ditu esleipendunak.

Udalarekin izan beharreko komunikazio formaletan birziklatutako orriak erabili beharko ditu enpresa esleipendunak.

Enpresa esleipendunak berdintasun plana aurkeztu beharko du zerbitzurako. Aurkeztu ezean, 6 hilabeteko epea emango zaio hori aurkezteko.

Kontratistak prestakuntza plan bat adostuko du Udalarekin zerbitzuko langileentzat.

Baldintza horiek funtsezko izaera dute kontratuaren betebeharretarako, eta beraz, SPKLTBren 118. artikuluan ezarritakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua erabakitzeke arrazoa izan daiteke 223. f) artikuluan aipatutako ondorioetarako.

## 17. KONTRATISTAREN LANEKO BETEBEHARRAK

Kontratista behartuta dago lan arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzen, Gizarte Segurantzakoak eta laneko segurtasun eta higienekoak, kontratu honetako zerbitzuetan erabiltzen dituen langileei buruz, eta Administrazioa dago hori bete ez izatearen erantzukizunetik salbuetsita.

Gainera, adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu zerbitzu horiek gaur egun egiten dituzten langileak, eta subrogaturik geratuko da aurreko adjudikaziodunak zeuzkan laneko eskubideetan eta obligazioetan, eta legeria eta lizitazio unean indarrean dagoen legeria eta lan hitzarmen kolektiboa beteko ditu. Bere gain hartu beharreko langileen artean daude, kontrataren titularitate aldaketa egitean El egoeran dauden langileak, amatasun atsedenean, behin-behineko ezintasun egoeran, eszedentzian edo oportretan daudenak.

NAN:

72.740.159-Z

44.333.497-P

44.341.210-Q

Soldata gordina: 522, 73 euro/hileko.

ASTEKO ORDUAK	MAILA	ALTA	KONTRATUA	ANTZINATASUNA
11,5	BEGIRALEA	04/09/2013	OBRA EDO ZERBITZU JAKINA	01/09/2011
11,5	BEGIRALEA	04/09/2013	OBRA EDO ZERBITZU JAKINA	01/09/2012
11,5	BEGIRALE	19/09/2013	OBRA EDO ZERBITZU JAKINA	19/09/2013

## 18. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BETETZEAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK.

Kontratua betetzean egin beharreko operazioen ondorioz sortutako kalteen eta galeren erantzulea izango da kontratista, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hartarako, hamabost eguneko epean, behin-behineko adjudikazioa jakinarazten denetik hasita, aseguru poliza baten kopia ekarriko du, gutxieneko berme muga 600.000 €-koa, eta baita hura ordaindu izanaren egiaztatzea ere, kontratuari datzekion arriskuak estaltzeko eta bereziki kalteengatik izan dezakeen erantzukizun zibilarena, beste batzuei sortutako kalteengatik eta adjudikaziodunaren langileen egintzez, haren mendeko iraunkor eta noizean behingoen egintzez, erabiltzen dituzten makinen eta tresnen makinek sortu ditzaketengatik, eta baita adjudikazioko zerbitzua ematean egindako lanen ondorioz sortutakoengatik ere.

## 19. KONTRATUA ALDATZEA

Udalak kontratua aldatzea izango du, herri onurako arrazoiak tarteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluan ezarritako kasuetan eta moduan.

## 20. ONARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xede den prestazioa bukatu eta 15 eguneko epean, kontratuaren onarpen ekintza formala eta positiboa egingo da, zerbitzuaren behin betiko txostena emanaz. Era berean, hilabeteko epea ezarri



da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean Testu Bateratuaren eta Lege horren Erregelamendu Orokorrean jasota datozen ondorioetarako.

Garantia epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

Epea igarotzen bada Administrazioak ezelako eragozpenik jarri barik, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da.

## **21. PENALITATEAK KONTRATISTARI, BETE EZ DITUELAKO**

### **A) KONTRATUAREN EXEKUZIO EPEAK**

Kontratista, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, berandu ibili bada kontratuaren exekuzio epea betetzeari buruz, bai epe osoari dagokionez, bai, hala badagokio, epe partzialei dagokienez, Administrazioak aukeran izango du, edo kontratua amaitzea, bermea galduz, edo 22. klausulan adierazitako penalitateak ezarriz.

Berandu ibiltzeagatik penalitateak iristen diren bakoitzean kontratuaren prezioaren ehuneko 5ren multiplo batera, Kontratazio Organoak ahalmena izango du kontratua bertan behera uzteko edo kontratuaren exekuzioarekin jarraitzea erabakitzeko, penalitate berriak ezarriz.

### **B) EGIN BEHARREKO LANEN EXEKUZIO PARTZIALA**

Kontratistak, berari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioen exekuzio partziala betetzen ez duenean, Administrazioak aukeran izango du, era berean, edo kontratua amaitzea, bermea galduz, edo 22. klausulan adierazitako penalitateak ezarriz.

## **22. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK**

Kontzesionarioak egindako hutsegiteak santzionatuko dira honela:

-Hutsegite arinak 60tik 150 eurotako isunaz santzionatuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urtean 15 hutsegite eginez gero.

-Hutsegite larriak 150tik 300 eurotako isunaz santzionatuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urtean 10 hutsegite eginez gero.

- Hutsegite larri-larriak 301tik 450 eurotako isunaz santzionatuko dira eta behin betiko bermea galduko du, eta zenbate beraz beste bat jarri beharko du kontzesionarioak, edo kontratua hautsiko da, hutsegite larri-larritzat kalifikatutako b) eta c) hutsegiteak izanez gero. Santzioez gain, kalte-ordain bat ordaindu behar dio kontzesionarioak udalari, egin ez den zerbitzuaren balorazioari, aplikatu ez diren bitartekoei, e.a.i dagokien zenbatekoaren truke. Ezarritako isunen kopurua hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik, edo jarritako bermetik.

### **HUTSEGITE ARINAK**

Hutsegite arinak izango dira:

a.- Atzeratzea kontratista bere obligazioak bete behar dituztenean.

b.- Udalak emandako jarraibideetan desobedientzia arinak.

c.- Gabezia arinak zerbitzua ematean, lekua behar bezala izatean, lokalak eta tresnak garbi izatean eta eraikinak eta altzariak erabiltzean.

d.- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea..

e.- Estatutako datuak eta azterketan ematean, atzeratu edo akatsak izatea, enpresa egotz dakizkiokeenak.

f.- Hainbat arrazoi dela-eta zerbitzuan gerta litezkeen aldaeren komunikazio falta.

g.- Udalak emandako aginduak betetzean atzeratzea, beti ere atzeratze hori 24 orduetik gorakoa ez bada, eta hala bada, hutsegite larritzat hartuko litzateke hutsegitea.

h.- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea

### **HUTSEGITE LARRIAK**

Hutsegite larriak izango dira:

a.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

b.- Bere langileriaren portaeraren kontroleko enpresa egitekoan zabarkeriaz jokatzea, erabiltzaileri buruz nahiz udal araudia zorrotz betetzeari buruz, eta bereziki kontratu hau arautzen dutenak.

c.- Kontratatutaren jardunak eraikinaren balio galera ekartzen duenean.

d.- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala erabiltzen ez denean.

e.- Kontratoak helburutzat ez duen jarduera bat egitea.

f.- Jartzen den ordutegia ez betetzea.

g.- Kontratatutaren oinarrizko betebeharren arau hauste larria.

h.- Kontratuan aipatzen diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunean, ezinbesteko arrazoirik ez badago.

i.- Baimendutakoak baino prezio handiagoak jasotzea.

### **HUTSEGITE OSO LARRIAK**

Hutsegite oso larriak izango dira:

a.- Kontratututako zerbitzuak ematen ez hastea orri honetan ezarritako epean ezinbesteko kausen ondorioz ez bada..

b.- Kontratututako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru egun baino gehiagoko aldi, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.

c.- Zerbitzua ematea pertsonen segurtasunari eragiteko moduko baldintzetan, arrisku larria eta zuzeneko eragiten dutenean.

d.- Ikuskatze zerbitzuen jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea, haiek ezarrita dituzten lege edo arauzko egitekoak burutu ditzaten galarazteko.

e.- Titulaziorik gabe edo lanbide trebetasunik gabe zerbitzu publikoa egitea.

f.- Zerbitzua bertan bera utzi edo etetea, kontratuaren epea amaitu gabe egonda, Administrazioaren baimenik gabe.

g.- Kontratatu den zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari adskribatutako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.

h.- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

## **23.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

1.- Jarduera dela-eta beste herri administrazio batzuk ematen dituzten diru-laguntzak kobratzeko eskubidea ere izango du.

2.- Orri honetan jasotzen direnez gain eta ordezeko arauak aplikatetik gertatzen direnez gain, hauek dira kontratistaren betebeharrak bereziak:

a) Kontratuaren helburua eta kontratuan ezarritako mugak errespetatzea, eta uneoro bermatuko da hura behar bezala betearaziko dela.

b) Kontratazio Organoak emandako jarraibideak betetzea, eta udal agintaritzari eta haren agente edo funtzionario aginpidedunei zerbitzuaren ustiatzea ikuskatzen utziko die.

c) Preskripzio teknikoaren orrian aurreikusitako eran kontratatutako lanak burutzea.

d) Egoera onean mantentzea eta zaintzea, altzariak eta beste material batzuk, hala nola zerbitzura adskribatutako eraikinak.

e) Udalaren aginduz zerbitzua aldatzea hartzea beregain, indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzetan.

f) Licitazioak eta kontratuak sortzen dituen tributu guztiak, estatukoak eta herrikoak, ordaintzea (tasak, kontribuzioak eta zergak).

g) Hiru hilero eta eskatzen zaion guztietan ematea informazioa, erabiltzaile kopuruaz, gorabeheraz, e.a.

h) Kontratuaren betetze mailaren memoria bat egitea, zerbitzua prestatzen den urte bakoitza amaitutakoan.

i) Zerbitzuaren errespetatu eta errespetaraztea.

j) Kontratu honek eskatutako baldintzen betetze mailaren urteko txostena.

## **24. UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

1.- Kontratistaren fiskalizazioa, eta horren eraginerako, behar diren aginduak emango dizkio esleituari Udalaren dagokion zerbitzuak, ohi denez eta behar bezala eman dezan zerbitzua, kontratuan datozen klausulen arabera, eta kontuan harturik batzordeburuak edo berak delegatzen duen pertsonak zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak izango dituztela.

2.- Orri honetan datozen gainerakoak.

## **25. BIRKONTRATATZEA**

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 227. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskatutako baldintzak bete behar direnez, adjudikaziodunak beste batzuekin hitzartu ahal izango du kontratua zati batean egitea.

Azpikontratuak egingo dira, baldin eta kontratistak idatziz adierazten badio Administrazioari zer azpikontratu egingo den, eta hor adieraziko du zeintzuk diren kontratuko aldeak azpikontratistaren aldetik.

## **26. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK**

Kontratu bertan behera uzteko arrazoiak dira Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 286. artikuluetan ezarritakoak

## **27. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK**

Administrazioari dagozko kontratua interpretatzeko eskubideak, kontratua betetzetik sortzen diren zalantzak argitzea, onura publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua bertan behera uztea eta haren ondorioak zehaztea, ondorioak finkatzea beti ere Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateratuan eta haren Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintzak eta ondorioak kontutan izanik.

## **IV.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA.**

### **28. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza agiri honen arabera egindako kontratuak administrazio izaera izango du eta kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, hauetan zehazten den guztira egongo da, Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege-Dekretua, Sektore Publikoaren Kontratuen Testu Bateratuarena, Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartua, eta Administrazio Publikoaren kontratazioari aplikagarri zaizkion gainerako arauak. Administrazio Klausula Berezien agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

### **29. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioaren esanetara egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitraiaren bitartez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorri

### **EGINBIDEA:**

**Nik neuk egin dut, Udaleko idazkariak, agerrazteko Administrazio Klausulen Agiri hau .....**

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES DE CONTRATO DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO Y TRAMITACION ORDINARIA.**

**SERVICIO POLIVALENTE PARA LA ADOLESCENCIA (GAZTELEKU) DE ARETXABALETA**

**I.- CONTENIDO DEL CONTRATO**

**1. OBJETO DEL CONTRATO**

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto el SERVICIO POLIVALENTE PARA LA ADOLESCENCIA DE ARETXABALETA, en las condiciones determinadas en el Pliego de Prescripciones Técnicas, en el presente Pliego y en la oferta que resulte adjudicataria del contrato.

**2. PLAZO DE EJECUCIÓN**

El plazo total de ejecución de la prestación será de 2 AÑOS, contado a partir de la firma del contrato, siendo susceptible de prórroga expresa y mutuamente acordada POR OTROS DOS AÑOS, sin que la duración total del contrato pueda exceder de CUATRO AÑOS.

El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

**3. PRECIO DEL CONTRATO**

El precio del contrato para los dos primeros años será de 106.520 euros más 22.369,2 correspondientes al IVA, cantidad que podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por los licitadores.

El presupuesto estimado del contrato, incluidas las prórrogas, si se produjeran, es de 213.040 euros más 44.738,4 euros correspondiente al IVA.

En el precio del contrato, entran los gastos de personal, materiales y actividades del servicio.

En el precio se entenderán incluidos todos los gastos e impuestos que se ocasionen como consecuencia del contrato.

**4. FINANCIACIÓN**

Existe crédito presupuestario suficiente para atender a las obligaciones que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento del contrato.

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

**5. FORMA DE PAGO**

El pago del precio del contrato se realizará previa presentación de la correspondiente factura de carácter mensual (correspondiente a una onceava parte del precio de adjudicación), la cual será supervisada y contrastada por parte de la técnico municipal responsable del servicio y, si procede, aprobada por el órgano competente.

Una vez aprobada la factura, ésta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 216 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

**6. REVISION DE PAGOS**

El presente contrato podrá ser objeto de revisión de precios cuando haya transcurrido un año desde la formalización de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 89 y 94 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

La fórmula a aplicar en la revisión, a partir del segundo año se contrato, será la correspondiente al 85% de la variación experimentada por el Índice de Precios al Consumo general de carácter estatal del año natural anterior.

## **7. GARANTÍAS**

### ***Garantía provisional:***

No se exige.

### ***Garantía definitiva:***

La empresa adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas, está obligado a constituir una garantía definitiva por importe del 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.

El plazo para la constitución de la citada garantía será de diez días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que el licitador que haya presentado la oferta económicamente más ventajosa hubiera recibido el requerimiento, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 96.1 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, con la salvedad de que las constituidas en metálico deberán de ser ingresadas en cualquiera de las cuentas corrientes del Ayuntamiento de Aretxabaleta.

